

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2022 Foru dekretua, apirilaren 26koa. Onespena ematea Kontseiluaren otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretua aldatzeari

Foru Dekretu honen xedea da aldatzea otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretua, gasolio profesionalaren kontsumoak jasaten duen hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzeko prozedura ezartzen duena, hilerio itzultzeko aukera emanez, hiru hilean behin itzuli beharrean.

Apirilaren 5eko 5/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak, premiazko neurriak onesten dituen azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko, premiazko zerga neurri iragankor batzuk hartu zituen, azkenaldiko ezohiko gertaerei aurre egiteko. Zerga premiazko araugintzako dekretu horretan, gainera, Arabako Foru Aldundiak zerga itzultzeak ahalik eta gehien arintzeko konpromisoa hartu zuen.

Horrekin bat etorritik, foru dekretu honek hidrokarburoen gaineko zergaren zati bat itzultzeko epea aldatzen du, gasolio profesionalaren kontsumitzaileek itzultze horiek epe laburragoan izan ditzaten.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen honekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txosten laburtua aztertu da.

Horregatik, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titullarrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Honako aldaketa hauek egiten zaizkio otsailaren 27ko 17/2007 Foru Dekretuari, zeinak hidrokarburoen gaineko zergaren eta gasolio profesionalaren kontsumoarengatik zenbait hidrokarburoen txikizkako salmentaren gaineko zergaren erkidegoko tasa aplikatzeari dagozkion kuoten zati bat itzultzeko prozedura ezartzen baitu eta Zerga Berezien otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintza Dekretuan jasotako izenen kode aipamenak eguneratzen baititu:

Bat. Aldatu egiten da 9. artikuluko 1. apartatua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“1. Hilabete natural bakoitza amaitutakoan, Foru Ogasunak, aurkeztutako zerrendak oinarritzat hartuta, zerga kuotak itzultzea erabakiko du, bidezkoa bada. Kopuruak banku transferen tziaren bidez itzuliko dira, onuradunak errolda inskribatzeko eskabidean adierazitako kontuan”

Bi. Aldatu egiten da 2. artikuluko 11. zenbakia. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“11. «Erreferentziazko aldia». Egutegiko hilabetea”

Hiru. Aldatu egiten da 8. artikuluko 2. apartatuko 3. zenbakia. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“3. Epealdia: 2 karaktere (dagokion hilabetea adierazteko bi zenbaki)”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko martxoaren 31tik aurrera hasitako erreferentzia aldietarako eta 2022ko apirilaren 30etik aurrera egin beharreko itzultzeetarako izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta

Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA